

## Haurreskola Partzuergoarekin izandako bilera.

Atzo, 3 sindikatuak eta Haurreskolak Partzuergoa bilera izan genuen. Izendatu berri den Hezkuntza ordezkaria, Eugenio Jimenez, etortzea lortu genuen. Sindikatuen arteko aldarrkapen bateratuaren berri Hezkuntza ordezkariari emateko aprobetxatu zuen STEILASek.

Bilera horretan behin-behinean landu ziren gaia orokorrak hauek ziren:

-Ordezkoen Zerrenda irekiera: Uztailaren 10ean, Ez Barematutako zerrenda argitaratuko da. Onartuen eta baztertuetakoa hautagaien zerrenda publiko egingo da Haurreskolak Partzuergoaren web gunean.

Uztailaren 11tik 24ra erreklamazio epea zabalduko da eta irailaren 15ean Ez Barematutako behin betiko zerrenda argitaratuko dute.

Era berean, Urriaren hasieran, **baremazio-bermaremazio epea ireki eta zerrendaren irekieraren deialdia** egin nahi dutela, iragarri zigun Partzuergoak.

- Pertsonal kudeaketako langileen Lanpostu Zerrenda proposamena aurkeztu ziguten 23 lanposturekin, eta hezitzaileen Lanpostuen Zerrenda 1136 lanpostu mantentzeko konpromisua hartzeko asmoa zutela esan ziguten.

-2017ko uztailleko esleipenak: Bi esleipen izango direla azaldu ziguten.

<b>UZTAILAK 20</b> Eibarren	1.ESLEIPENAK  16:00etan	Plaza hutsak (ukoak eta jubilazioak) Liberazio sindikalak eskainiko dira.
	2.ESLEIPENA 17:00etan	Desplazamenduak eskainiko dira.

Ordezkoen araudia dagokionez, irailetik aurrera zehaztapenak eginten hasiko gara.

Lan Hitzarmeneko, Eszedentziak (47.artikulua), eta Norberaren Eginkizunetarako Baimena (44.artikulua), asteleheneko bileran lantzeko beharra ikusten du enpresak, beste gai zerrenda honekin batera: kudeaketako eta hezitzaileen lanpostuen zerrenda, Esleipenak (eskainiko diren plazak, ordezkapenak, mugituko diren plazak...) behin behineko datuekin eta ordezkoen zerrendaren irekiera egutegia.adostea.

